



2014KO AZAROAREN 7KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko azaroaren zazpian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaraturako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Maialen Aldasoro Aranburu zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkezten da 2014ko urriaren 17an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2014ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 83 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HEMEZORTZI MILA ZORTZIEHUN ETA HOGEITA HEMEZORTZI EURO ETA BERROGEITA HEMERETZI (18.838,59 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 564 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea 2014ko azaroaren 4tik aurrera, egoitza batean sartu delako.
- 11-11-03 zbk.dun esped.: egin beharreko ekonomi ekarpenean aldaketa egitea, heriotzagatik elkarbizitza unitatean aldaketa egon delako. Ekarpena %2 izatetik %4 izatera pasatzen da 2014ko azaroaren 3tik Aurrera.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 09-01-008 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimendu gastuetarako laguntzaren zenbatekoan aldaketa egitea, heriotzagatik elkarbizitza unitatean aldaketa egon delako. Ematen zaion zenbatekoa hilean 45,33€ izatetik 35,61€ izatera pasako da azaroko hilabetetik. Ematen zaiona eskatutakoaren %77a da.

- 564 zbk.dun esped.: larrialdietarako laguntzatik baja ematea azaroko hilabetetik Aurrrera, egoitza batean sartu delako.
- 14-01-007 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 112€ ematea urritik abendura eta mantenimentu gastuetarako hilean 23,13€ ematea urritik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.

IV.- EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK .-

2013-2014 ikasturtean euskara ikasteko eskoletara joateagatik diru laguntza eskariak ikusi ondoren eta udalak honetarako jarritako baldintzen arabera Euskara, Hezkuntza eta Zerbitzuen Sektorea Batzorde Informatzaileak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, proposamena onartu eta espedientean azaltzen den xehetasunaren arabera 14 laguni guztira SEI MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI EURO (6.678 €) ematea erabakitzen du.

V.- LORATEGI-ZAINTZA KONTRATAZIO ESPEDIENTEA.-

Lazkaoko Udal honetako hiriguneko berdegune, parke eta lorategien mantenimentu eta artapen zerbitzuaren kontrataziorako osatutako espedientea ikusi ondoren, eta Hirigintza, obra eta zerbitzuetako batzordeak kontratazio espedientearen aurrean egindako kontratazio-proposamena, horrekin batera doan dokumentazioa eta gaiarekin lotutako gainontzeko gorabeherak ikusita, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, zera erabaki du:

- 1.- Jardunbide ireki bidez kontratatzeko espedientea eta kontratua araupetzeko administrazio-baldintza zehatzen orria onartzea, bai eta urteko ehun eta hamahiru mila lauehun eta hogeita hamazazpi euro eta berrogeita hamar zentimotako (113.437,50 €) gastua ere.
- 2.- Preskripzio Teknikoen Orria onartzea.
- 3.- Esleipena egiteko jardunbideari hasiera ematea.

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Inazio Estensorok (EAJ) bulegoen antolaketa fisikoaren inguruan, alkatea eta ogasuna eta pertsonalaren zinegotziarekin hitzegin nahiko lukeela esaten du.

Alkateak erantzuten baietz egongo direla.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



[Handwritten signature in blue ink]